

8.000

ZUMAYA-KO EUSKAL-FESTETAN

AITA DANIEL BAERTEL-EK

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN EGINTAKO

SERMOYA

1900-eko Agorraren 23-an



SERMÓN

PREDICADO EN LA IGLESIA DE ZUMAYA

DURANTE LA

SOLEMNE MISA MAYOR

del día 23 de Septiembre de 1900

POR EL

Rvdo. P. Daniel Baertel

ANTE LA


Excma. Diputación provincial de Guipúzcoa.



SAN SEBASTIÁN

Imprenta de la Provincia.

1900



A. D. Mariola Curcunegui

ATV
23639

H-48833

M. G. de Barrio

R-49018

F-48717

ZUMAYA-KO EUSKAL-FESTETAN

AITA DANIEL BAERTEL-EK

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN EGINTAKO

SERMOYA

1900-eko Agorraren 23-an



SERMÓN

PREDICADO EN LA IGLESIA DE ZUMAYA

DURANTE LA

SOLEMNE MISA MAYOR

del día 23 de Septiembre de 1900

POR EL

Rvdo. P. Daniel Baertel

ANTE LA

EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA



SAN SEBASTIÁN

Imprenta de la Provincia.

1900





1900-eko Agorraren 23-an
GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN
AITA DANIEL BAERTEL-EK

MEZA NAGUSIAN EGINTAKO

SERMOYA

ZUMAYA-KO ELEIZAN.

Domine, bonum est nos hic esse.

LUC. c. 9, v. 33.

Jauna, ongi gaude omen.

SAN LUCAS, 9-garren buru., 33 b.

GIPUZKOAKO Ekautari Jaunak: Erri ontako agintari-tzea daukazuten zaldun prestu, eta nere anai mai-teak: Nere Jaun eta Jabeari emango diot nik detan onore guztia, bigarren aldiz itz egiten detalako Euskal-festetan, zeintzuben eginkizunik andiena dan, iraungitu (1) eta doatzutu (2) gure ama eta lurraren eskumaiz (3) donekarriak, (4) zeren gure lur bedeinkatu au dan biotzuki (5) eta goituzeduna (6) Aitzgorriko atz erpiña bezela, zeñaren gordairupean arkitzen dan Ama Arantzazukoa, gure Erregiñ boailanditu edo koroatua, eta zeñari zuzentzen

- (1) Perpetuar.
- (2) Gloriflear.
- (3) Tradiciones.
- (4) Venerandas.
- (5) Pladosa.
- (6) Altiva.

diotan irakastegi edo pulpito ontatikan, nere bularraren aurreneko asnasa, nere biotzaren aurreneko zuspurio, eta nere aoaren aurreneko itza, zeintzuek izango diran baita ere zuen asnasa, zuspurio eta itzak gaurko Euskal-festan.

Arako 1886-garren urtean nere jaioterri Durango-ko uri chukunean aurreneko aldiz itzaldiatu nintzan Euskal-festetan ta orduban jarraiturik zeru goitiko argitasunari, kantatu nituben Euskal-erriko oitura gozoak, eta esan nuan nola gorde bear genuben gure itzkuntz garbi, bizi eta ederra, zeintzuek ziraden emengo biztanleen (1) doai, griña, izaera ta eginbideak. Izentatu nituben galgiro eta kaltegarri batzuek eta oju egin nuben batez ere dantza naspill ta erbestetikan ekarritako berrien kontra; ta orain berriz une edo okasio ontaz baliatzen naiz, kontuan ipintzeko zuek guziak, bada dantza berri oiek dijuaz gure aur-esku, atz-esku, bana banaka garbiaren kontra; eta ¡o! zeinbat aldiz Arima zaitzalle ta apaiz jaunak ikusi oizituzten errietako alkate jaunaekin batian dantza garbi eta mirariz beterikako aiek, zeren, iñork ere jarrai bide charrik artzen etzuben, bañan galduaz dijuaz; eta ordaintzeko ekarri nai dizkigute Franzia edo Alemania-ko baltzio nazkagarriak. Atzera, atzera euskaldun elizkorrak, gure erromeri ta plazaetatikan dantza madarikatu eta arageiti (2) oiek; bada aur gaztien garbitasuna bera zikintzen du gaizbide ori ekusteak bakarrik, eta basbiltzen dituzte eranzungarri andienekoak, ez bakarrik dantzatzen diranak, baita ere naikidatzen dituztenak eta gurasoak gain gañetikan.

Jaungoikoagatik bada, eta Guipuzkoako oitura garbiagatik otoizmenu (3) nai zaituztet ez ditezela ikusi gure plazaetan dantza berri oiek, eta zeruak beekidatu ditzala, eta onek izan bear luke Zumayako Euskal-festa oneetatik atera bear genukian aurreneko alorta edo frutua.

Jaungoikoak nai dezala ala izatea.

Ongi gaude emen, esango det San Pedrok bezela Tabor-ko mendian: ongi bizi gera Euskaldunak, bada probinzi

(1) Habitantes.
(2) Dishonestos.
(3) Os conjuro.

onetako mugapeak begiratu batian idurin badu ere mendi goititu ta arkaitzez jositako eremulatz desberdin bat; bertako jaiotarrentzat inon ere ez da, bera dan baño bizi leku leunago, ederrago, gozuago, jostalluago eta chukunagorik. ¿Zerekin ordaintzen dirade bada mendi chinchur oiek berenez ematen dituzten lore indartsu ugariak, ezkur mamiitsu gozoak, basuetako gaztañadi osasuntsuak, zelaietako sagardi ugariak, aitz irme esaditzuak beren errai garbietatik oparo isurtzen dituzten iturri geza-gozo osasungilleak, oietatik egiñeratzen diran erreka zistor ta ibai andi arrain gozandetsuz beteak, eta beste gauza aberats asko beretatik amilka ta doarik echera datozkigunak?

Mendiak eta menditako gauza oiek, berperak ziran bada, lendabiziko gizonak beren emazte ta seme alabaekin, nai erara izateko, billatzen zituzten bizileku ta bizikairik aurrengoak. Beragatik gure Aita lenen Tubal jakintsubak, Armeniatik Españara etorri zanean, esleitu edo apartatu izan zuan toki arkaitz tarte menditsuan, zer jan, ta zer edan bertan ikusten zitualako ugari. Poztu gaitezen bada Euskaldunak, poztu bai Gipuzkoatarrak, eta On Domingo Agirrek Zestuan eta Aita Serapio Mendia Zumarragan esan zizutena esan bear dizutet nik gaur, Zumayako erri pollit eta chukun ontan, au da: Kristoren gurutze eta fedarekin batean gorde dezagula leialkiro gure izkuntz paregabe au, eta esan bear diogula gure Ama maite, bizikor gaiñ gañeko Euskerari: Aitorren seme alabak bizi gera oraindik, emen gaude, zureak gera, atoz len bait len lantzera, eta gorde gaitzatzu ordu onean zure kolko zabal, mardul, gozo ta indartsuan sekula betiko. Ala izan dedilla.

Eta biotzetikan
Eskatu ezkerro,
Euskera biziko da
Orain eta gero.

Bai, Ekautari Jaun eta nere biotzeko Gipuzkoatar onak: gaiztakeriak tokirik geintzuetan indar andia baldin badu ere; izaturik jarten dubela gaur eguneko lagunkidea, Jaungoikoari esker milla, Euskal-errian gordetzen da zi-

leikinde eta erlijioa, eta gure asabetatik ikasitako oitura zarrak, bada emengo echadi eta familietan errezatzen da errosario santuba, bedeinkatzen da otordu bakoitzean maia, egiten dira goiz ta arratseko otoiz ta eskariak; gordetzen dira itz batean esateko, Jaungoiko eta Eliz Ama Santaren agindubak, donesturik, bertako lan guziak, zeintzuetara emanik dauden Euskaldunak bizi eta garbi, diralarik onore andikoak gañerako probintzi guziak aitortzen duten bezela. Emengo ekautari ta agintari Jaunak dirade begiratuak beren prestutasunagatik, esku garbi ta jakintsubenak bezela eta inpi inpi edo ozt ozta ikusi oi dira emen beste toki askotako lapurreri ta adrakaizteak, zeintzuk diran pekatu izugarri andi pisu ta lardatzak.

Euskal-erriko irakasdeen gañean esan dezakegio maisu jaun eta andre maistrai ordaintzen zaiztela araukoro edo puntu-alki beren lan guzia; eta aurreneko letrak geientsubak ikasten dituztela errietako eskola eta aparteko daki-regi edo kolejioetan; bai Eliz gizon eta andre mojen bidez edo bai aparteko maistra eta maisuen bidez, eta Euskal-errian ditugu gañera berriz bi lkasola edo Unibersidade, bata Oñatin eta bestia Deuston eta biak aditze andiko eta lorentzen denak.

Probintzi onetako jaiotarrak gazte gaztetatikan dira neke izerdizkostara gogoz jarriak, eta saiatuak. Jendadi maitagarri onen lagintzarik urrenengo eta ezagutubenak dira: artzaintza, achurkintza, ikazkintza, argintza, burnigintza eta arraintza. Gipuzkoatarrak badakite ichasoz mundu guziari jira ematen besterik inor sartu baño lenago. Esan bezate Elkanok: *tu primus circumdedisti me* eta gañerakoak. Badakite baita ere arraintza andiako egiten eta ichas-lapur gaizto asko aienatzen ere. Emengo bide berri ta burnizkoakin mirariturik daude, ez bakarrik Españako probintziak, baita ere lurbira guziko dierri edo nazioak. Emengo aberastasuna chit ongi bertuzitu edo emazkitar dago; eta beragatikan doakabe edo pobre guchi ezagutzen dira; eta premi andian gelditzen diranai, ongi begiratzen zaie erriko eche eritegitza, San Bizente Paulko bilguma eta San Antonioren ogia deitzen zaion kuchachoaren bidez, eta batzar au banatu izan da Euskal-erri guztian, eta jarri

izan dan Eliz guztietan, ¿zeinbat eskale ordaindu ditu mirariz beterikako Antonio Santuak?

Ongi bizi gera emen, baño obekiago bizi giñake; bada lurbiro onetako gauza guziak obeki jarri ditezke; zeren gure aita Adanek pekatu egin zuben unetik gaurko eguneraño, eta aurrerontzean ere uts egiteak izango dira, eta jaiotzen geranetikan iltzeko zorian jarri arteraño beti jarraituko dizkigute uts egite oiek. Jarraiturik bada nik ere itz aurrean esan detan Durangon egin nuben sermoiari eta nai nukean on guzia egiteagatik Euskal-erriko anima eta gorputzai, edo kantatzeko probintzi onetako anditasunak; baña baita ere menperatzeko ditugun utsegiteak, aurreneko esker andiak emanik Ekautari jaunai nere aita len edo probinzialaren izenean, Aita San Franziskoren Kantauriako fraile guzien izenean, eta batez ere andienak neronen izenean lan aundi au egitera billatu nautelako; bel-durrez beterik bada ere, esango det zercho bait gure Fueroen gañean, gure aparteko izate eta garbitasunaren gañean. Esan dezakegu, bai: Jauna: ongi gaude emen. Bañan agertu bearko ditut Euskaldunen artean dauden uts egite batzuek, oiek menperatu eta lurperatu ditezen Jaungoikoaren gloriarako eta lur bedeinkatu onen onerako; eta azkenian berriz izentatuko det, menturaz aurre bidea ematen bazaio mesede andiak ekarriko dizkan gauzacho bat gure Euskal-erriari.

Bear bezela lan guzi au egiteko ¡Jaun andia! lagun zaidazu, eta argi ezazu nere adiña, eta piztu nere anima; bada nere aditzalle maiteakin batean eskatzen dizut bitarteko jarririk zure, eta gure ama samurra, zeñari esaten ditugun Aingeruakin batean: Agur Maria.

Domine, bonum est nos hic esse.

Gipuzkoako Ekautari Jaunak, erri onetako agintaritzea daukazuten zaldun prestu eta Aita San Ignazioaren erritar-kidekoak:

Euskal-probinzietako Fueroak edo izate modua, batez ere iritarau eta elkargarritasuna eraztuten dute bere egoitza barrungoak, eta alde andi bat daukate beste Fueroetatik, zeintzubek deitzen diran Errikoak, eta iduki zituzten emandako gallardi edo aparteko lege baten bidez España-

ko beste alderri batzuek ere. Euskal-probintziak beren izateko Fueroen bidez gorde zuten euren ezeki gabetasuna gogora gabeko gizaldietatik beren egoitza elkargarritik eta oroimen au galdutzen da denporetako gau illun eta irakurgai estalpetsuetan. Gaztelako koroira aparteko lokarri batzuek bidez bildu bañon askozaz lenagotikan, bizi ziran Españako balleratuan bezela ikusten zirala Euskaldunak gudatzen edo peleiatzen asko alditan euren Kapitan edo agintarien aldamenean Gaztelako diande edo tropeen aurrean, moro beltzen kontra, euren betiko auzardi zeierkorra kin. Eta au, gauza egokia zan; bada denpora bat zegoan, zeñetan gure izkuntz paregabeko onek erraldatzen zituan probintzi onetako mugarriak, eta bertako izate Elizkorra, ain sustraituba lur onetako jaiotarretan bear-tuko zituan nai ta ez, bertako semeak gudatzera emengo jaiotarren ausartasunaekin ezkutarmatzat illargi erdia zeukaten guzi guzien kontra. Gañera berriz, gauza jakiña da probintzi oiek egiten zutela luziazalde (1) bat bakarra, gañerako Iberotarren Oztugarteakin. (2)

Egin zan gero, len esan detan bezela lokarri baten bidez probintzi oien batasuna Gaztelara; eta ordutikan iritaraurra ere egiten dute eurak Españako zati bat; bañan gordezten dutelarik probintzi bakoitzak egoitza berea estalpetasunaekin (onela deitu al balezaioke) Gaztelako koroaren-gana. Ez da sartzen kondaira eta Euskaldunen lege zarretan esaten danez, irudide aldentzaki edo apartekizunik, baña Euskaldunak degu legez eta bidez, eskubidea gure Fuero donekarri guzietara, Fuero bedeinkatubak, zimendatubak izate Elizkor gain gañekoan, zeinzubek mendi oietako semeai iraaften dizten birtute Elizkor ta uritar garbienak, Fueroak zeintzubek egundaño ez ditugun arutzitu edo agurtako, Fueroak azkenik, zeintzubek iñoiz ere, ez diran lurperatuko.

Probintzi onetako bakoitzak, eta baita ere Naparroakoak egiten dute legez eta bidez, euren dierriko batiztuna lurpera; euren lege apartekoakin; ez ditezke berangatik

(1) Unidad geográfica.

(2) Península.

izentatu arjakinde eskolatsuan, alderri Euskal-Naparra, lau Probintzi oietako bakiñdeak; zeren euretako bakoitzak, norperaren Fueroak ditu; eta alderria da: erri eta probintzietako bakide bat, zeintzuben maniatzen diran lege apartekoen bidez, batez ere iritarauak; eta bakarrik ontzat eman diteke, alderria deitzea lau probintzi oiei, aditurik itz onek esan nai duala, nola aizpak bait diraden, eskubide berberaekin bakoitza bere Fueroetara, daudela elkargaturik, iruchuko (1) irabazi edo bakidagatik eta konbeni da, gorputz bat egiñikan, ezkudatzea laurak: indar geiago emateagatikan euren guda bidezkoai; aurreneko, guregandu; eta gero berriz, zutikan idukitzeko euren lege bedeinkatuak. Eta goguan iduki bear ditugu egindako adierazte oiek; desegiteko utsegite eta naskida aztun eta pisu batzuek; eta jarraibide gaitoak, zeintzuetan asko erortzen diran gudeetako denpora oietan, alderriaren bandera erakutsirik, zeintzuben ikasbideekin, Euskaldunak, egoki dan bezela chit erakiro gaude, (bakidaro ordea) bada ikasbide oiek gure izate zarraekin egokiturik daude.

Gure Fuero gain gainekoak indargabeturik gelditzean, gertatu zan Euskal-probintzietako agintari nagusi erabiltzalleen sorrera: dierri guziko legiakin bat egiñik; eta sorrera arrekin etorri ziran onera ere, nai ta ez; batez ere ekierakoan zerbait trabakida erabiltzaille eta iritarauan artean, gertatzen zala egiazko guda bat autatu bear ziranian agintariak gudatzen zirala aldeda edo partidu bakoitza euren banderak alchaturik. Eta orra zergatik aienatu ez ditezken charkeri asko, autatulari eta autatuen artean arkitzen dalako alde andi bat.

Euskal-erriko zaldun Ekautarien prestaera onari eskerarak, ozta ezagutzen dira probintzi oietan onelako uts egiteak, eta inoiz edo berriz gertatzeak ez du ezer esan nai, supituko gauzak izan dira; alaz guztiaz ere oju egin bear det gai ontan, bada esaerak dionez *regis ad exemplum, totus componitur orbis*, au da: goikoen jarraigarriak, sortzen dituzte bian daudenen eginkizunak.

Gure Fuero bedeinkatuen indar gabetasunetik, ondoren-

(1) Comandita.

go dator soldautzako legea eta izer gauza negargarria! gure mutill liraiñ bulardetsuak, utzirik euren bizileku gaitzik gabeak, beartzen dituzte gudatarren artean bizi izatera, eta an egon bear dute legeak izentatzen duan denpora guzian: eta gure gazteria, zein ateratzen dan garbi eta ona, euren gurasoen ehetik; nola bizi bait bear duan uri eta erri andietan, probintzi guzietako soldaduakin naspi-llaturik, irudi eta oitura guzietakoak, zeintzuekin bizi bear duten soldadu eheetan; eta nola batzokide oietatik kendu izan diran eginkizun Elizkor asko, baita ere errosario santuba, zein, denpora obiagoetan errezatzen zan gerrarien bilgumeetan, gauza argi eta jakiña da, gure gazte giza-joak itzultzen dirala euren erri ta eheetara, biotz Elizkorra-kin bai; bada Euskal-errian, ori, titiakin batean artzen degu; eta bein ere galtzen ez du egiatzko Euskaldunak; bañan galkidaturik amorio geiegirekin, mintzatu eta kantatzera erderaz, itz moldakaitzak esateko oituraekin eta larritzen banaiz ere esatean, itzultzen dira geientsuak Jaungoikoaren kontrako arneguakin euren ezpañetan, pekatu ichusi orrekin diot, zein dan, etsai gaiztoen lana, pekatu narkatuba, zerua narrikatu, eta lurra samintzen duana. Jaungoikoatik bada, aditzen didazuten gazteak: beartzen zaituztenean juatera, bizi zaitezte ernai, eta amorio andi batekin erreza ezazute errosario santuba egunero, beta dezutenean beintzat, ta zuen lagunen itz galgarriak, belarri batetikan sartu, eta atera ditezela bestetik aguro, maite ezazute Euskera, gurasoakgandik ikasitako itz samurra, kanta itzatzue euskaraz gure zortziko maitagarriak, aienatzen dituzutela soldadu eheetako kanta lardatz, galgar, motel, ta moldakaitzak; eta dantzatu bear bazerate, dantza zaitezte, baita ere Euskaldunen gisa garbi eta liraiñ; eta ez amerikanoak bezela, zeintzubei, ez diegun jarraitu bearrikan euren oituretan, ez diralako egokiak gure izate bulardetsuakin. Jaungoiko, Ama Arantzazuko, San Ignazio Loyola-ko, eta geien maita dezuten gauzagatik; arren, ez dezazutela arnegatu Jaungoikoaren kontra, ez dezazutela zerua zikindu, ez dezazutela pekatu ori egin; bada ori da, gizonak egin dezakean pekaturik andiena, bere gaiztakeria andia bada ere.

Euskaldunen izate berezkoa da, nere aditzalle maiteak, azkarrak, portitzak eta bulardetsuak izatea edozein ere laneatarako; eta baita ere zerbait menturatuak beldurtzen ez dituala guchienian ere, jadechitzeko euren nai-izateak ez gaitzetasunak, es arriskoak. Euskaldunak euren izate berezko orrengatikan, jadechi dituzte ezin zeinbat-tu edo konta ala omen eta garaitondo gain gañekoak. Churruka, Okendo, Elkano, Legazpi, eta beste asko eta gure arrantzale ausartazunez beteak, baleak achitzen ziraden denporan, dirade jarraigarrri biziak, ezagutzeko gure izate berezkoa, zeintzuek betetzen duten anditasunez gure jatorri portitz eta umantea.

Bañan izate berezko orrek ditu baita ere, bere pelleburu edo arriskoak; eta andiena da, mugitzea gure erritarrak amodio geiegia artzera erbestetuzeko, ichasoz joatea zorriona billatzera Amerikan; eta ori jakin gabe nontegitu, auda: degun mentura degula: larriena dalarik emakumechoak ere ausartzen dirala ainbesteraño; eta geienentsuak engañuz, billau, dollor batzuen bidez. Eta gertatzen da, erbestera dijuazen geienak galkidatzea; bada galtzen dituzte oitura Elizkorrak, apartatzen dira Jaungoikoagandik, eta bizitzen dira, edo obekiago illtzen dira eunetik larogeita amar, zikoizkerian, euren erri eta echiaren ojuz alperrikan ordea. Buru gabeko erbestetasun oiek egiteko ez degu nere anai onak batere premiarikan; alde batetik, probintzi oiek ondo beteak badaude ere, beste alde batetik jende geiegirik ez degu, emengo lurak berriz eman oi du bertako erritar guziak jan dezakegun aña, emen baditugu ekintzategi edo fabrikak, saldu erosi, tratu eta bear ainbat gauza, bertako seme alabak nontegitu edo ipintzeko; emen ez da lanikan falta, lan egin nai duanentzat.

¿Non billatu diteke lur bira bat osoa, Guipuzkoako probintzia onen chukuntasunean, landu eta ongarritua? Lanbide onen gañean izkribatu izan duten gizon arrotz jakintsu guztiak, aitortzen dute bada: Gipuzkoako nekazaritza, arkitzen dala goienengo mallara igoa. Eta alasen da, izatez ere. Beraren mugape guztian, ez da arkituko oña bete leku, alper dagoanik. Edozein aldetara begiratu eta ikusten da ederki apaindua. Eta emen ongi bizi gera, beste

alderdi askotan baño obekiago, Jaungoikoa maite degula,
lana doneztetzen degula, eta iñori palta etzaiola egunero-
ko ogia. Artez eta bidez zebillan kantatu zuana:

Alderdi guzietan
toki onak badira,
baña biotzak dio
zoaz Euskal-errira.

Etzaitezela bada erori zuen bizilekuak lagatzeko loka-
rrian; bada bizi leku oiek dirade Jaungoikoarenak. San
Jose ren seigarrengo pozkida izandu zan Ejiptoko erbeste-
tasuna uztea, erbestetasun bear bearrekoa; jarraitu bear
ziolako zeruko argitasun, eta Aingeruaren agindubari; eta
bere bizilekua beartsua bazan ere, izandu zan Nazaretkoa.
Euskal-erriko lurra da guretzat Nazaret gozoa: atsegin
gaitezen bada, emen bizitziakin.

Badira baita ere erbestetu bear duten beste Euskaldun
batzuek; baña, nai ta ez: eta denpora guchirako; eta ez
Amerikara, baizikan Españako beste baion edo portueta-
ra. Oiek dira gure arrantzale azkar eta eramankorrak,
zeintzubek juan oi diran atun tsuaren aurreneko denboran
Asturias eta Santander-ko portuetara, arrai mueta ori
agertzen dalako urte batzuetatik onera, itsas choko aietan,
gureetan baño lenago. Ez det eripetutzen, (1) obekiago on-
tzat ematen det, erbestetasun ori; bada egin bear dan gau-
za da, beteko badituzte euren eginkizunak, zeintzubek di-
ran; irabaztea eureentzat, eta eureen emazte eta semeala-
baentzat bizikaiak. Baña Gipuzkoako arrantzale bularde-
tsuak banatzen badira ere, euren biotzukiagatik, aitortzen
dutenez Bizkaiko portuetan, Bermiotar eta Ondarroatarrai
aditu izan diotanez, alaz guztiaz ere, Santander eta Astu-
rias-en igaro oi dituzten bi edo iru illa beteetan, artzen di-
tuzte euren osasun, famili, Eleiza eta Euskaldunen iza-
teari egokitutzen etzaizkan oitura batzuek. Erregututzen
dizutet bada arrantzale eramankorrak, zeintzubekgatik
aparteko amodio andi bat detan, bein baño geiagotan
agertu detan bezela Itziar, Motriko, Ondarroa, Bermeo,

(1) No condeno.

Getari, Ondarrabi eta Donostiako irakastegi edo pulpito-etatikan: erregutzen dizutet bai, bigarrenko aldiz ere, bizi zaitezela ernai; erbesteko portuetara zoaztenean, irme eta sendo arkitu zaitezte zuen biotzeko. Aita San Pedrorekin, itzuli zaitezten biotz garbiakín zuen emazte, guraso eta seme-alabaen artera; eta Jaungoikoak lagunduko dizute bedeinkatzen dituala zuen chalupa, arraun, sare, eta arrantzarako bear dituzuten juan-etorri guziak, eta orduan zuen amuak achituko dituzte atun andiak, diruz beteko dira zuen batzarrak, poztuko dira zuen erriak eta atsegindu zuen echadi eta familiak.

Nere itz aurrean esan dizutet, nere anai maiteak: Euskal probintzi maitati oietan irakasdea arkitzen dala erpin-tasun edo goieran. Au, gauza jakiña da: bañan baditu baita ere gora bera batzuek egiñkizun bear bearreko onek; batez ere, aurreneko irakasde edo letreetan; eta gora bera oiek datozkigu, gaurko eguneko lege berrien bidez; eta oiek zuzentzeko badakit lanik asko egiten dutela Euskal-erriko Ekautari jaunak, eta beragatik esker andiak ematen dizkatet Euskaldun on' guzien izenean. Aurreneko irakasdea, gu bezela lutarte oietan bizi geranentzat; bai maisubak izentatzeko, eta baita ere eskoleetan gorde bear dan irakasderako Probintzietako Ekautariak egin bear dute lanik andiena, eta euskeraz itz egiten dan errietako maisubak, euskeraz jakin bear luteke, apaiz eta arimazaitzalleak bezela; eta batez ere erri chikietan, euskeraz erakutsi bear litzake kristauen jakin bearra; eta eskola guzietan beartu bear lirake maisubak, Euskal-erriko oitura onai jarraiturik, joatera beren ikasleakin meza nagusi, arratsaldeko Eliz bilguma, eta baita prozesio, garitate edo lataiñetara ere, lenago bezela.

Aurrera, bada, Euskaldun Ekautari prestubak, Sorterri onen irakarde eta zileikindeak eskatzen dituan gauza aparteko gaiñ gaiñeko oiek irichi arteraño; eta ala, onkaitu edo mereziko dezute, Jaungoiko eta lurbira onen esker ona. Fueroak euren oñean irozotzeko kirtenik irmeena da, eta baita euskarririk sendoena Euskerazko izkuntzari ondo ondo kontu egitea: zergatik, elkarri laztandurik, arras itsachiak arkitzen diran, batak bestea ezin laga dezakean

gisan. Euskera ill ezkeru, Fueroak ez dira biziko; bañan Euskera bizi bada, Fueroak piztuko dira. Fueroak nai dituanak, maite izan bear du Euskera; eta Euskera maite duanak, Euskaldunai Euskeraz bear die itz egin, eta adierazo berai dagozkioten gauza guzti guztiak. Bestela, zapuztuko da Euskera, musinduko dira Euskaldunak, eta iges egingo dute Fueroak; eta nik beintzat esango det:

Euskera ill ezkeru jai!
ez det nik bizi nai.

Gure jatorria da, nere anai onak, jatorri jakintsuba, eta len ere baziran, eta oraiñ ere baditugu Euskaldun argidotarrak, zeintzubek emanik dauden argitasun guztiakin gure izkuntz gaiñ gaiñekoaren lantegira; eta alegiñik asko egin zuten lengoak, eta baita ere gaurkoak, zabaltzeko Euskal-erriaren neurtarte eta jakindea, irozotutzeko geiago eta geiago gure biotzetan, gure lurrarenganoko amodio eta goitasunak, zeintzubek anbat kidatuko duten ezin geiagoan gure sorterriaren garbitasuna. Larramendi, Aizkibel, Iztueta, Astarloa, Henao, Iturriza, Mogel, Uriarte, Navarra Villoslada, Novia Salzedo, Trueba eta beste gizon argidotar askok eraztutzen dute Euskaldun jakintsuben talde eta kopuruba, zeintzuben arima onak, Jaungoikoak iduki ditzala bere zeru kutunean. Eta gure egunetan ere, distiatzen dira beste jaun askoren artean, Labayru, Kanpion, Azkue, Agirre, Arrese, Artola, Belaustegi, Azkarate, Mokoroa eta On Karmelo Echeagaray. Eta azkenengo jaun au, batez ere goratu nai nuke erri ontako seme ospatsua dan aldetikan; eta gañera berriz zaldun kristauba. ¿Nork ezagutzen ez du España eta erbesteko izkribatzalleen artean? Nik, agur amodiozko bat egin nai dizut irakastegi onetatikan, bada zure izkribu leun eta gozoak, mirariz betetzen naute eta choratzeko zorian jarri ere, bein baño geiagotan. ¿Nor mirariz beteko ez da irakortzean zuk antolatu dituzun lanak, ata Euskerara itz neurtuetan biurkeratu edo itzuli dituzun Aita Luis Leon eta Selgas jaunaren itz neurtu aditze andikoak? Zu zera, nere adiskide maite batek dionez, Gipuzkoatar argidotarra, kondairatzalle zia-

di andikoa, (1) itz neurlari gain gañeko ereñoztu eta sarizatuba; (2) eta zerbaitegatikan izentatu zaitube iru aizpa probintzietako kondairatzalle, eta leialkiro betetzen dezula uste det zure egin-bide ori.

Badira gañera, iñongo eskoletan beiñ ere sartu gabetaniko itz neurlariak buruz buru, bi bitara, eta iru irutara ere peleiatzen dakitenak, Zumayan bertan ikusiko ditugun bezela. Oien esaera egoki eta epaira zorrotzak baldin zabalduko balira Quevedo eta beste askorenak bezela, ikusi naiko nuke, norenak izango ote lirakean chistagarriagoak, jostailuenak eta geiena zor zaiotenak.

Ondo gauza jakiña da, nere aditzalleak: lurbira onetan poliki bizi gerala; eta ondo lorezturik daudela emengo merkataritza eta duinkiñak, ikusten diralarik edozein ere tokitan gei askotako ekintzak: eta burnizko meatzeak beti kanporatzen dirala, iñork sinistatuko ez lukean bezela erbesteko dierrietara, kanporatzen dirala ichasoz ta legorrez, artzen dirala irabazte gizenak, eta egiten dirala dirupilla andiak, eta gero diazkitutzen dirala, jarririk burni bidetan, merkataritza eta gañerakoetan. Nik bedeinkatzen ditut duikiñ eta ekintza edo fabrika oiek, Eleizak ere bedeinkatzen ditualako; baña jakin bear da jaunak irabazte mirarizko oietatik, jaiotzen dala ezin geiagoko egarri izugarrizko bat, aberastutzeko; eta bide chiorretatik andizkitu nai dutela batek baño geiagok; eta meatze ta ekintzak kanporatzen ez diranean, jokutzen dala, dagoana, gelditzen dirala echadi asko arditikan gabe, mankarrot andien bidez, murriturik eurak, eta beste echetar asko, gelditzen dirala doakabeturik. Urre eta jokoaren griña galgarri orren bidez, etzaitezela menperatu Gipuzkoatarrak; bada griña orrek eraman ditu bat baño geiago, zorigaitz, bide gabetasun, eritegi eta gaiztategietara; eta bizitza larri onen ondorean, beti betiko infernura. Saiatu zaitezte bizi izatera geiegirikan gabe; eta bakoitzak bizi bear du norperen lanak ematen duan mallan. Onekiñ ez det esan nai ordea, ez dezutela alegiña egin bear alchatzeko zuen eche-

(1) De grandes vuelos.

(2) Laureado.

tarraren gurasonkarria, legez eta bidez; sartu gabetanikan geiegi zuen irabazia pelleburu andikoetan. Probintzi oietako ekintzak, badaukate beste pelleburu bat, eta andiagoa oraindik, duikin meatzedunak artu izan duan indarrarekin. Etorki arrotzak eldu izan dira toki guzietatikan, eta asko beintzat oitura galgarriakin; eta nola biltzen bait diran gure gazteak, arrotz oiekin, zikintzen dute maizcho ala ere euren garbitasuna; eta batzokide oietan, ateratzen dira ikasbide berri langilleenak nagusi eta agintarien kontra.

Bear bearreko gauza da, bada, zilekaitzea batzokide oiek, batzar jolasdun Elizkorren bidez, aste guzietako paper, euskeraz edo gaztelaniz izkribaturik, alkardadezko gupidakeri eta misio santuak iñoiz edo beste emanik; bada Moneszillo Apaiz-piku guzien nagusiak esan zuan bezela: *ogia, sinistamenen orrichoan sabaldurik bear bezela, menperatuko sivala aragiaren nai izate sitalak.*

Gutziz ezagutuak, eta chit aomen andikoak izan dira beti Gipuzkoako menastak, diralako berenez, beste toki askotakoak baño obeago eta balio geiagokoak; baño oietako nagusiak galerazi bear die langilleai Jaungoikoaren eta Santuaren kontrako arnegu, birao eta erderaz esaten diran beste itz bear ez bezelakoak; zemaiturik kanpora ateratziaz, eta lanik gabe geldituko dirala, bearturik euren menpekoak jai andi eta igandeak gordetzera zintzo; orda-indurik leialkiro zor dioten aloger guzia; eta bear baño ordu luzeagoetan, ez die lanik erazi bear; izan dezaten bear aña denpora euren izerdiak legortu eta echetarren eginkizunai begiratzeko; eta ez dituzte beartu bear, bizikaiak eroatera onelako edo bestelako dendatikan; eta, itz batean esateko, begiratu bear die langilleai guraso baten amorio gozoarekin. Onela egiñik, kentzen zaie langilleai, edozein ere aitzaki bildu ez ditezen gaurko eguneko jende berritsu eta itzontziakin, eta onela egiñik, ez dira egingo buru gabeko billera, eta iratiazteak, zeinñtubek daukaten beldurrez gure lagunkida au.

Bukatzeko nere azalde oarkera oiek, utzi bearko dirate azkenik, Euskal-erriko nagusi eta menperatariak, egiten oarkera chiki bat gure lurbira onen zorientasunerako, ze-

ñak ez duben pellebururik, eta bai mesede andiak. Barren-go miñ andi batek ematen du, ikustean gure mendi eder eta basorik geientsubenak arboladirik gabe, igarturik eta idorturik Atilaren soldaduak oiñ azpiratu, edo aingeru mugatitzalleak erre balitu bezela. Gutziaren aizkora gaiztoak ebaki ditu arech eta pagoak!, gure aurretikoak utzitako ondasuna; eta gizaldi erdibatetikan onera deseginda gure aberastasunik oroimengarriena eta lur onetan ondoen zetorrena, eta inorcho gogoratzen ez da arboladi berriak jartziaz. Gure aurretikoak zintzo euren jatorriakin, nola bait zekiten echetarrak euren bizikaietan irauten zutela emartza batetikan besteraño, (1) bizitzen ziralarik arech arbola guztiak baño luzeruago; arreta andi batekin apaintzen zituzten euren baso eta mendiak; eta uzten zuten urrengoentzat aberastasun ongi sustraitu, ugaritsu eta illezkorrena. Ez da gaurko egunean onela asmotzen. Gaur, bizj nai degu egunekoakin, gaur erakutsi oi da makurtasun neurri gabeko bat batetikan bestera dabiltzan jabaritasunaren alde, eta guzia ebakitzen da gizen dirudienetik, eta etzaio begiratzen ondorengoai zer utzi bear zaien. Eta gisa orretan kontuak ateratzen badira, gure baserri zuri pollitak, denpora guchien buruan, galduko duten euren izate bere berezkoa, euren aomen donekarra, eta Euskaldun aiton zar bedeinkatuak geldituko dira jartegi eta berogarri gabe. Len bai len bada, bertizarritu bear ditugu gure mendi basoetako lege zarrak, jantzi bear ditugu zuaitz mardul lirañez, ostoz beterikako arech, pago eta pinadiz, eta oien bidez etorriko zaizkigu ez bakarrik aberastasunak, baita ere, euri gozotsu osasungarriak zeru goitiko garbitasun, eta gure biriketean bear degun aize bide ona.

Onetarako, gauza egogia izango litzake, Ekautari jaunak, muintegi andiak jartzea, eta baso andietako nagusiakin elkar arturik, bi alderditakoak etorri bear luteke oar-kera on batera, eta nagusi batzuek ez baluteke nai, lan oiek dakarzkien gastuagatik, aurretiaz dirua ipintzea, eman bear dute baimena, Probintzi bakoitzeko Ekautariak

(1) De generación en generación.

egin dezaten landatze au, euren kontura gelditzen dirala arboladiak, bai basotiak, edo bai charakoak, erdi zati berdiñean, lur oien nagusi eta bilguma bakoitzaren artean. Ongonde edo tratukida onekin, bi alderdiak geldituko lirake berdiñ samar, zeren Ekautegikoak irichiko luteke gastatu zuten baño gainde geiago, eta nagusiak ere ongarrituak geldituko lirake, idukigabe basoak gaur dauden bezela, zugaztirikan gabe eta gañera berriz, arboladi oien itzalean ederki bazkatuko litzake aberea, eta belardi ta garutegiak irabaziko luteke askozaz geiago. Batera edo bestera bete bear ditugu gure mendi basoak; bada bertan jaio eta aziak dira ugaritsuena, bikaiñenak eta baliorik andienekoak. Gipuzkoako baso maitagarriak nolako ondasunak eman izan dituzten, iñork ere asmatuko ez luke. Naparroan asi dira, eta jarraitu bear diegu.

Ea, bada, Euskaldun nere anai biotz biotzekoak: ernai jarri bear degu. Gipuzkoako biztanle prestu guziak bada-kite argiroki beren zoriona datorkiotela jatorriz dituzten Fuero oneskietatik; bañan oek oso ta garbi gordetzeko gauzarik bearrena zer dan ezagutzen dutenak guchi dira chit. Gogora zaitezte nola emengo batzarrekoak egiten zioten juramentu Jaungoikoari, gurutzeari, eta Ebanjelio santuaren itz egizkoari. Eta gañera agintzen zuten Gipuzkoako onari begiratuko ziotela zuzen eta griña gaizto gabe, Jaungoiko eta Erregiari zor zitzaien menekio eta aurpenaren kalte gabe. Gorde dezagun leialkiro gure asaba zarrak utzi ziguten fede bedeinkatuaren ipigandea, lurrundurik birtutezko egitade gaiñ gañekoakin. Gorde dezagun baita ere amorio irazeki andi bat, Gernikako arbola maitiarentzat, zein dan gure eskutarmarik ezkutapetsuena; eta beraren itzalpean biziko gera zoriontasunez beterik, kantatzen ditugula gure zortziko gomendagarriak. Ignazio gure Patroi andiaren kantarte gaindiroa adituko da emengo inguru guzietan; eta bai mendi erpiñ eta bai zelai zabaletan, andi eta chiki, gazte eta zar, aberats eta beartsu, ezkondu eta ezkongaiak, Eliz-gizon geranak eta lurbirako zaldunak, gudatar ta pakezkoak esango degu: *Bisi bedi Euskera*, eta emen ongi bizi gera.

Alcha zazu bada zure burua, Gipuzkoako probintzi chit

leial, eta guztiz argidotarra; ongi merezi dituzu amabi suntu-
tunpa zure eskutarmetan; bada zu zera Españaiko zatirik
aurrengoetakoa gauza askoren bidez eta batez ere, Erre-
suma andi onetara lendarabizi etorri izandu zan izkuntz eder,
guri, gozoa, oso eta garbi gorderik, Franziako muga iriki
baliosoari anitz eta ongi kontu egin izan diozulako estura
larri askotan. Egia da, probintzia labur onek lau milla ta
geiago urteren epean, izan dituala juan-etorri asko, gora-
bera andiak, gertakari samiñak, eta auzi kaltarkitsu izu-
garriak. Bañan atsekabe garratz, estura portitz, eta larri-
tasun illgarri guztiai arpegi emanik, arkitzen da bere gaz-
te denporako edertasun distiatuarekin oso ta garbi. Agur
amodiozko bat egin nai dizut Jaungoikoak ongarritu zai-
tualako Arantzazu, Iziar, eta Ondarrabi ta Eibarko Arra-
te munaizka erpiñeta dituzun talluntza miragarrizkoakin.


Izan zaite bada esker onekoa, eta bizi zaite beti San Ig-
naziok eta San Martiñek irozotu zuten jarrai bide onian.

Aitorren seme bulardetsuak, Gipuzkoako emakume bi-
zikorrek: Ondarrabiako Iger-en muturretik asi eta Motri-
ko: año alde batetikan, eta bestetikan berriz Aiamendiko
aitzetik eta Inzuzburu: año, eta baita ere Arnotikan Gal-
daramuño deitzen zaion mendietako mugapean bizi zera-
ten guzi guziak: mintza zaitezte denok gure izkuntza go-
zoan, gure biotzeko Euskeran eta Jaungoikoak biurtuko
dizkigu gure lege zar maitetsuak eta kantatuko degu lu-
rrean:

Gernikako arbola
Da bedeinkatuba,
Euskaldunen artean
Guztiz maitatuba,
Eman ta zabalzazu
Munduan frutuba,
Adoratzen kaitugu
Arbola santuba.

Eta au izango da kanta aurea; bada kanta azkena egin-
go degu zeruan esaten degula: Esker milla, Jauna: Euskal-
errian jaio, Euskal-errian bizi, eta Euskal-errian azkenen
go asnasa zure grazian eman genubelako. Ala izan dedilla.





TRADUCCIÓN AL CASTELLANO

A. O.



SERMÓN

PREDICADO EN LA IGLESIA DE ZUMAYA DURANTE LA SOLEMNE MISA MAYOR

del día 23 de Septiembre de 1900

FOR EL

Rvdo. P. Daniel Baertel

ANTE LA

EXCMA. DIPUTACIÓN PROVINCIAL DE GUIPÚZCOA

•Domine, bonum est nos hic esse.▪

Señor, bueno es estarnos aquí.

(LUC. C. 9. V. 33.)

EXCMA. Diputación de Guipúzcoa.

Amadísimos hermanos míos en el Señor.

Me cabe el honor, y él sea dado á Dios, de predicar por segunda vez en los Juegos florales Euskaros, en estas fiestas que tienen por especial objeto perpetuar y glorificar las tradiciones venerandas de nuestra exenta y católica tierra, piadosa y altiva como las cimas de Aitzgorri, donde se asienta la Madre de Dios de Aránzazu, nuestra excelsa y coronada Patrona, á quien hoy dirijo, desde esta cátedra sagrada, el primer aliento de mi pecho, el primer latido de mi corazón, y la primera palabra de mi boca: aliento, latido y palabra, que responden perfectamente al que exhalan vuestros pechos, al que arranca de vuestros corazones y pronuncian vuestros labios en esta magnífica solemnidad religiosa.

